

URLIA:	Aizu! EITB-k kopiatu zigun!
SANDIA:	Benetan? Nola izan zen, ba?
URLIA:	Lehiaketa bat antolatu zuten <i>'Doctor Livingston supongo'</i> programan: erreportaje berriak egiteko ideiak eskatzen zituzten. Irabazleak bere erreportajea egingo zuen ETBko baliabideei esker.
BERENDIA:	Eta irabazi egin zenuten?
URLIA:	Ezetz, ba! Oso garestia zen guk aurkeztu genuen erreportajea.
SANDIA:	Hain garestia?
URLIA:	Bai, Ekuatore Ginea bisitatu nahi genuen. Duela ehun urte Manuel Iradier Gasteizko euskal esploratzaileak egin zituen bideetara itzuli nahi genuen. Bertan zer topatu zuen aztertu, eta gaur egunekoarekin konparatu.
BERENDIA:	Eta?
URLIA:	Beste proiektu bat atera zen irabazle, xumeagoa. Baina, handik eta bi hilabetera, programaren aurkezleak hara non dioen Manuel Iradier euskal esploratzaileak urratutako bideetara joko zuela eta hari buruzko erreportaje bat egin!
URLIA:	Harrezkero, erregistratu egiten dut nire puzkerrik koskorrena ere! Aupa jabetza intelektuala!
BERENDIA:	Bejondeiela!
URLIA	Kontuz, gero, ezer kopiatzen badidazu niri!